

**CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES A  
ASOCIACIONES DE ESTERIBAR PARA LA  
ORGANIZACIÓN DE ACTIVIDADES Y PROYECTOS EN  
EL ÁMBITO DE LA CULTURA, EDUCACIÓN,  
IGUALDAD, EUSKERA Y JUVENTUD  
AÑO 2021**

El Ayuntamiento de Esteribar concederá ayudas para la organización de actividades conforme a las siguientes

**BASES**

**1.- OBJETO Y FINALIDAD**

El Ayuntamiento de Esteribar entiende que uno de los modos de impulsar el fomento en los ámbitos de la cultura, educación, igualdad, euskera y juventud es mediante el apoyo a las diversas iniciativas, actuaciones y proyectos que la sociedad local genera a través de sus asociaciones o entidades sin ánimo de lucro.

La presente convocatoria tiene por objeto apoyar económicamente el desarrollo de proyectos de las asociaciones locales que realizan actividades en el ámbito de la cultura, educación, igualdad, euskera, juventud y que desarrollen una función estable en Esteribar, complementando así la acción del ayuntamiento en los ámbitos descritos.

Por lo tanto, los proyectos susceptibles de ser subvencionados se referirán a actividades sociales y culturales, que estén dirigidas a la población de Esteribar y que fomenten la participación en la vida pública de Esteribar a nivel social, asociativo, cultural o lúdico. Así como actividades cuyo objeto sea la promoción de la igualdad o la promoción del euskera.

**2.- CONSIGNACION PRESUPUESTARIA**

Estas ayudas se abonarán a cargo de las siguientes partidas presupuestarias del Ayuntamiento de Esteribar para el 2021, que podrán destinarse parcialmente o en su totalidad:

- Para solicitudes de subvención de actividades socio-culturales: 3340 4820001
- Para solicitudes de fomento del euskera: 3350 4820001

**ESTERIBARKO ELKARTEENTZAKO DIRU-  
LAGUNTZEN DEIALDIA, KULTURAREN,  
HEZKUNTZAREN, BERDINTASUNAREN,  
EUSKARAREN ETA GAZTERIAREN ARLOAN  
JARDUERAK ETA PROIEKTUAK ANTOLATZEKO,  
2021. URTEA**

Esteribarko Udalak laguntzak emango ditu jarduerak antolatzeko, honako klausula hauen arabera:

**OINARRIAK**

**1.- XEDEA ETA HELBURUA**

Esteribarko Udalaren ustez, kultura, hezkuntza, parekidetasuna, euskara zein gazteria arloak sustatzeko moduetako bat da tokiko gizartea irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakundeen bidez sortzen dituen ekimen, jarduera eta proietktuei laguntzea.

Deialdi honen xedea da diruz laguntzea kultura, hezkuntza, parekidetasuna, euskara eta gazteriaren arloan jarduerak egiten dituzten eta Esteribarren funtziogonkorra betetzen duten tokiko elkartearen proietktuak. Horrela, deskribatutako esparruetan udalaren ekintza osatuko da.

Beraz, diruz laguntzen ahal diren proietktuak jarduera sozial eta kulturalei buruzkoak izanen dira, Esteribarko biztanleei zuzenduak eta Esteribarko bizitza publikoan parte hartzea sustatzen dutenak, gizarte, elkarte, kultura zein maila ludikoan. Halaber, berdintasuna sustatzeko edo euskara sustatzeko jarduerak ere lagundu nahi dira.

**2.- AURREKONTU-ESLEIPENA**

Laguntza hauetan Esteribarko Udalaren 2021erako aurrekontuko kontusail hauen kargura ordainduko dira, zati batean edo osorik erabiltzen ahalko baitira:

-Jarduera soziokulturaletarako diru-  
laguntzen eskaeretarako: 3340 4820001

-Euskara sustatzeko eskaeretarako: 3350  
4820001

### 3.- REQUISITOS PARA LA SOLICITUD DE AYUDAS

#### 3.1. DE LAS ASOCIACIONES:

- a) Estar legalmente constituida en la fecha de presentación de la solicitud.
- b) Tener su domicilio social en Esteribar.
- c) Estar inscrita en el Registro Municipal de Asociaciones Locales (o tener solicitada la inscripción antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes) y tener los datos del registro actualizados.
- d) Estar al corriente de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social y de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.
- e) Que su objeto social tenga relación directa con el objeto de la subvención.

#### 3.2. DE LAS ACTIVIDADES PROGRAMADAS:

- a) Ser públicas y estar abiertas a todas las personas vecinas de Esteribar que se encuentren en el colectivo al que va dirigida la actividad. Para ello se publicitarán de forma suficiente a la totalidad de la población de Esteribar.
- b) Todas las actividades subvencionadas se comunicarán con tiempo y datos suficientes al ayuntamiento correspondiente para la publicación en agendas y web municipal.
- c) El proyecto presentado será económicamente viable, contendrá un presupuesto equilibrado, es decir, las cantidades de gastos e ingresos serán equivalentes. (Anexo I)
- d) Tipo de actividades subvencionables: actividades relacionadas con la danza, la música, teatro, las artes plásticas, la difusión del patrimonio histórico, social y cultural, actividades dirigidas al conocimiento de la cultura propia, las que fomenten la igualdad, la diversidad, la promoción de actividades juveniles, la participación social y ciudadana, y otras análogas de naturaleza artística o sociocultural.

En ningún caso podrán recibir subvenciones del Ayuntamiento de Esteribar las entidades cuyos fines, sistema de admisión, funcionamiento, trayectoria o actuación sean contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

### 3.- LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

#### 3.1. ELKARTEEI DAGOKIENEZ:

- a) Eskabidea aurkezten den egunean legez eratuta egotea.
- b) Egoitza soziala Esteribarren izatea.
- c) Tokiko Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta egotea (edo eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen izena emateko eskaera egina izatea) eta erregistroko datuak eguneratuta izatea.
- d) Zerga-betebeharra, Gizarte Segurantzarekikoak eta Udalarekiko zerga-betebeharra egunean izatea.
- e) Soziitatearen xedeak zuzeneko lotura izatea diru-laguntzaren xedearekin.

#### 3.2. PROGRAMATUTAKO JARDUERAI DAGOKIENEZ:

- a) Publikoa izatea eta jarduera zuzentzen zaion kolektiboaren baitan diren Esteribarko herritar guztientzat irekita egotea. Horretarako, Esteribarko biztanle guztiei zuzendutako behar adinako publizitatea emanen zaie jarduerai.
- b) Diruz lagundutako jarduera guztiak garaiz eta behar beste datu emanez jakinaraziko zaizkio dagokion udalari, udal-agendetan zein web-orrian argitaratzeko.
- c) Aurkeztutako proiektua ekonomikoki bideragarria izanen da, aurrekontu orekatua izanen du, hau da, gastuen eta diru-sarreren kopuruak baliokideak izanen dira. (I. eranskina)
- d) Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak: dantza, musika, antzerkia, arte plastikoak, ondare historiko, sozial eta kulturalaren hedapenarekin lotutako jarduerak, tokiko kultura ezagutzera emateko jarduerak, berdintasuna, anitzasuna, gazteei begirako jardueren sustapena, gizartearren eta herritarren parte-hartzea sustatzea bilatzen dutenak, zein izaera artistiko edo soziokulturaleko antzeko beste batzuk.

Esteribarko Udalaren diru-laguntzarik ezin izanen dute jaso, inolaz ere, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioaren aukako helburu, onarpenean sistema, funtzionamendu, ibilbide edo jarduketa duten elkarteeek.

**Quedan excluidas de la presente convocatoria:**

- a) Las actividades asistenciales (sueldos, dietas, kilometraje etc. de organizadores), obsequios, actividades gastronómicas (almuerzos, comidas, meriendas...) A excepción de aquellas actividades que se les aprecie un interés cultural y formen parte de la actividad.
- b) Actividades que se realicen fuera del término de Esteribar que no estén directamente relacionadas con las actividades objeto de la Asociación.
- c) Gastos generales o de mantenimiento de la propia asociación o materiales necesarios para el desarrollo de su actividad. En todo caso se podrá estudiar, la posibilidad de subvencionar una parte de su coste en función de su necesidad para las actividades subvencionables.
- d) Quedan excluidos los viajes, salvo que se les aprecie un especial interés cultural y social. Podrán ser subvencionables los viajes como salidas culturales abiertas a todo el colectivo del Valle a quien va dirigida esa actividad.

**4.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR**

Las solicitudes se presentarán en el Registro del Ayuntamiento en un plazo de **tres meses** a contar desde la publicación del anuncio de convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra. El plazo será improrrogable.

**Se deberán presentar:**

1. Instancia de solicitud, debidamente cumplimentada, solicitando acogerse a esta convocatoria.
2. Anexo 1 por cada actividad para la que se pide subvención.
3. Aportación del número de cuenta de la Asociación o Entidad local en el que se desea que se abone el importe de la subvención otorgada
4. Declaración que exponga si ha existido o se ha solicitado otro ingreso o ayuda económica de entidad pública o privada.
5. Deberán presentar los certificados actualizados que demuestren estar al corriente de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social y de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento. Los anexos se podrán recoger en las Oficinas municipales o en la página web municipal ([www.esteribar.org](http://www.esteribar.org))

**Deialdi honetatik kanpo daude:**

- a) Asistentzia-jarduerak (antolatzaileen soldatak, dietak, kilometrajea, etab.); opariak; jarduera gastronomikoak (hamaketakoak, bazkariak, askariak...). Kasu honetan, salbuespen dira kultura-intereseko jarduerak zein gastronomía jardueraren erdigunean dutenak.
- b) Esteribarko mugapetik kanpo egiten diren jarduerak, elkartearren xede diren jarduerekin zuzeneko loturarik gabekoak.
- c) Elkartearen beraren mantentze gastuak edo gasto orokorrak edota bere jarduera garatzeko beharrezkoak diren materialak. Betiere, kostuaren zati bat diruz laguntzeko aukera azterten ahalko da, jardueretarako beharrezkoa den kasuetan.
- d) Bidaiaiak ez dira sartzen, non eta ez zaien interes kultural eta sozial berezirik antzematen. Diruz laguntzen ahalko dira kultur irteera gisa egiten diren bidaiaiak, jarduera hori zuzentzen zaion bailarako gizarte-kolektibo osoari irekita direnean.

**4.- ESKABIDEEN AURKEZPENA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

Eskabideak Udalaren Erregistroan aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta **hiru hilabeteko epean**. Epea luzaezina izanen da.

**Hauek aurkeztu beharko dira:**

1. Eskabidea, behar bezala betea, deialdi honetan parte hartzeko eskatuz.
2. Diru-laguntza eskatzen den jarduera bakoitzeko Ieranskina.
3. Emandako dirulaguntza ordaindu nahi den toki elkarte edo entitatearen kontu zenbakia.
4. Entitate publiko edo pribatuaren beste dirusarrera edo laguntza ekonomikorik izan den edo eskatu den adierazten duen aitorpena.
5. Zerga betebeharak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Udalarekiko zerga betebeharak eguneratuak dituztela frogatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko dituzte.

Eranskinak udal bulegoetan edo Udalaren web orrian ([www.esteribar.org](http://www.esteribar.org)) jaso ahal izanen dira.

## 5.- VALORACIÓN

5.1. Este Ayuntamiento valorará las solicitudes presentadas conforme a los criterios indicados en el punto 5.2 y la concesión de las subvenciones se realizará por resolución de Alcaldía.

El importe estimado de la subvención a conceder estará en todo caso supeditado a la efectiva realización de las actividades para las que se solicita la subvención y al coste real de las mismas.

5.2. La valoración y propuesta de concesión de subvenciones se realizará en base a los siguientes criterios:

- Participación y carácter intrasociativo del proyecto.
- Coherencia de la propuesta en cuanto a sus objetivos, actividades y presupuesto.
- El interés de las actividades y la repercusión social de la actividad.
- Promoción y fomento de la normalización del Euskera.
- El fomento de la inclusión y cohesión de las y los vecinos de todas las poblaciones de Esteribar.
- El nivel de inclusión de la igualdad entre sexos en el proyecto.
- El conocimiento e interrelación entre culturas.
- La inclusión y sensibilización hacia las personas con discapacidad.
- La creatividad y el carácter innovador de las actividades.
- La sostenibilidad medioambiental
- El número de personas y tipo de público al que van destinadas las actividades.

## 6.-CUANTÍA DE LAS AYUDAS

6.1.- La cuantía máxima de las subvenciones concedidas será del 50% del presupuesto de la actividad, con un máximo de 3000€ por colectivo.

6.2.- El Ayuntamiento podrá abonar hasta el 100% del presupuesto de aquellas actividades o proyectos que acompañados de un informe favorable del personal técnico correspondiente, el ayuntamiento considere de especial interés para el municipio.

6.3- En cualquier caso, y en función de esta disponibilidad presupuestaria y del número de solicitudes, si fuera necesario, se disminuirá de manera proporcional, la aportación correspondiente a cada beneficiario.

## 5.- BALORAZIOA

5.1. Udal honek 5.2 puntuaren adierazitako irizpideen arabera baloratuko ditu aurkeztutako eskaerak eta Alkatetzaren ebazenaren bidez emanen dira dirulaguntzak.

Eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, nolanahi ere, diru-laguntzaren xede diren jarduerak benetan gauzatzearen eta jarduera horien benetako kostuaren mende egongo da.

5.2. Dirulaguntzak irizpide hauen arabera baloratu eta proposatuko dira:

- Proiektuaren parte-hartzea eta elkarte barruko izaera.
- Proposamenaren koherentzia, helburuei, jarduerei eta aurrekontuari dagokienez.
- Jardueren interesa eta jarduerak gizartean duen eragina.
- Euskararen normalizazioa sustatzea eta bultzatzea.
- Esteribarko herri guztiako bizilagunen inklusioa eta kohesioa sustatzea.
- Sexuen arteko parekidetasuna zenbateraino hartu den kontuan proiektuan.
- Kulturen arteko harremana eta ezagutza bultzatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen inklusioa eta haiekiko sentsibilizazioa.
- Jardueren sormena eta izaera berritzalea.
- Ingurumen-jasangarritasuna kontuan izatea.
- Jarduerak eginen diren pertsona-kopurua eta publiko mota.

## 6.-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

6.1.- Emandako diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa jardueraren aurrekontuaren % 50 izango da, gehienez ere 3.000 euro kolektibo bakoitzeko.

6.2.- Udalak, dagokion teknikariaren aldeko txostenarekin batera, udalarentzat interes berezikotzat jotzen dituen jarduera edo proiektuen aurrekontuaren % 100 ere ordaindu ahal izanen du.

6.3- Nolanahi ere, aurrekontu-erabilgarritasun horren eta eskabide-kopuruaren arabera, beharrezkoia izanez gero, onuradun bakoitzari dagokion ekarprena proporcionalki murriztuko zaio.

## 7.- OBLIGACIONES

Las entidades beneficiarias quedarán obligadas a:

- Realizar las actividades y actuaciones aprobadas.
- Comunicar al Ayuntamiento los cambios relevantes surgidos en el desarrollo de los programas subvencionados.
- Facilitar la labor al ayuntamiento.
- En la propaganda empleada para difundir las actividades y programas, sea cual sea el formato, se citará al Ayuntamiento de Esteribar como colaborador.
- Cada asociación se hará cargo de que la difusión de las actividades llegue y sea accesible en igualdad de condiciones para toda la población de Esteribar.
- Será requisito que todos los soportes publicitarios utilizados para dar difusión a las actividades o proyectos para los cuales se solicita la subvención, vayan redactados en euskera y castellano y presenten un lenguaje e imagen incluyente. Para ayudar a cumplir este requisito se pone a disposición de los grupos y asociaciones el servicio de traducción y asesoramiento del Servicio de Euskera del ayuntamiento ([euskara@esteribar.org](mailto:euskara@esteribar.org))
- En el caso de que las actividades subvencionadas reciban ayuda económica de otro organismo deberá comunicarse Ayuntamiento de Esteribar.

## 8.- JUSTIFICACION DE GASTOS Y MEMORIA DE ACTIVIDADES

a) El último día para presentar en el registro del Ayuntamiento la memoria de actividades realizadas, será el **14 de diciembre del año 2021. El plazo de justificación será improrrogable**. Para los gastos que no puedan ser justificados en el plazo señalado, porque la actividad se realiza posteriormente, el plazo de presentación de justificaciones finalizará el 15 de enero del 2022.

b) Se presentará la siguiente documentación:

- Memoria de actividades con los siguientes conceptos: descripción de la actividad realizada, número de participantes, evaluación general, balance económico de la actividad realizada, firmado por persona competente que refleje gastos e ingresos relativos a la actividad (anexo II) (Art. 30.4 de la Ley General de Subvenciones).

## 7.- BETEBEHARRAK

Erakunde onuradunek betebehar hauek izanen dituzte:

- Onartutako jarduerak eta jarduketak egitea.
- Diruz lagundutako programen garapenean gertatutako aldaketa garrantzitsuen berri ematea Udalari.
- Udalari lana erraztea.
- Jarduerak eta programak zabaltzeko erabiltzen den propagandan, formatua edozein izanik ere, Esteribarko Udala laguntzaile gisa agertuko da.
- Elkarteko bakoitzak bere gain hartuko du jardueren komunikazioaren hedapenaren ardura zein berau Esteribarko biztanle guztiengana baldintza berdintasunean iritsi dadila.
- Diru-laguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak zabaltzeko erabiltzen diren publizitate-euskarri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko dira. Hizkera eta irudi inklusiboa izan beharko dute. Baldintza hori betetzen laguntzeko, udaleko Euskara Zerbitzuak aholkularitza zein itzulpen zerbitzua eskaintzen die talde eta elkarteei ([euskara@esteribar.org](mailto:euskara@esteribar.org)).
- Diruz lagundutako jarduerek beste erakunde baten laguntza ekonomikoa jasotzen badute, Esteribarko Udalari jakinarazi beharko zaio.

## 8.- GASTUEN JUSTIFIKAZIOA ETA JARDUEREN MEMORIA

a) Egindako jardueren memoria udaletxeko erregistroan aurkeztekoh **azken eguna 2021eko abenduaren 14a izanen da. Justifikatzeko epea luzaezina izanen da**. Adierazitako epean justifikatu ezin diren gastuetarako, jarduera geroago egiten den kasuetan, justifikazioak aurkeztekoh epea 2022ko urtarrilaren 15ean amaituko da.

b) Dokumentazio hau aurkeztuko da:

- Jardueren memoria, honako kontzeptu hauekin: egindako jardueraren deskribapena, parte-hartziale kopurua, ebaluazio orokorra, egindako jardueraren balantze ekonomikoa, jardueraren gastuak eta diru-sarrerak jasotzen dituen pertsona eskudunak sinatura (II. eranskina) (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30.4 artikulua).

- Facturas de gastos (originales o photocopias compulsadas) en las que deberá aparecer: nombre y apellidos y NIF de la persona que recibe el dinero, concepto, importe.
- Copias de los folletos, carteles u otro tipo de soportes publicitarios utilizados para la difusión entre la población de cada una de las actividades.

## 9.- RESOLUCIÓN

9.1.- Presentada la documentación justificativa a que se hace referencia en la base núm. 8, se procederá en su caso, a la aprobación del gasto y al abono del importe restante (30%) por la Alcaldía o bien al reajuste o modificación de la subvención inicialmente otorgada, en función del grado de cumplimiento de las actividades programadas y de la justificación del gasto de las mismas.

## 10.- MODO DE PAGO

10.1. Los pagos se realizarán del modo siguiente:

- El 70% en el plazo de 15 días a partir de la fecha de concesión, en concepto de adelanto.
- El 30% restante en el plazo de 15 días a partir de la fecha de valoración de la documentación justificativa reseñada en la base número 8, y siempre antes de la finalización del primer trimestre del ejercicio siguiente.

## 11.- INCUMPLIMIENTOS:

11.1. El cambio de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención podrá dar lugar a modificaciones en la resolución de concesión.

11.2. Se deberá reintegrar la cantidad recibida en los siguientes casos:

- a) No justificar las actividades aprobadas.
- b) Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas.
- c) Incumplir las condiciones de esta convocatoria para la concesión de subvención.

11.3. Cuando por medio de las funciones de inspección y control, se tengan indicios de la subvención se ha obtenido, disfrutado o destinado de forma incorrecta, el Ayuntamiento podrá acordar la retención de facturas o documentos relativos.

- Gastuen fakturak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsuak), non agertu behar duten: dirua jasotzen duenaren izenditeurak eta IFZ, kontzeptua, zenbatekoa.
- Jarduera bakoitzaz herritarren artean zabaltzeko erabilitako liburuxka, kartel edo bestelako publizitate-euskarrien kopiatik.

## 9.- EBAZPENA

9.1.- 8. oinarrian aipatzen diren egiaztagiriak aurkezturik, alkatezak gastua onartu eta gainerako zenbatekoa (% 30) ordainduko da, edota hasieran emandako diru-lagunza doitu edo aldatu ere, programatutako jardueren betetze-mailaren eta horien gastuaren justifikazioaren arabera.

## 10.- ORDAINTZEKO ERA

10.1. Ordainketak honela eginen dira:

- % 70, lagunza ematen denetik 15 eguneko epean, aurrerakin gisa.
- Gainerako %30, 8. oinarrian aipatzen diren frogagiriak baloratzen direnetik 15 eguneko epean, eta betiere hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoa bukatu baino lehen.

## 11.- EZ BETETZEAK:

11.1. Diru-lagunza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, diru-lagunza emateko ebazpenean aldaketak egin ahal izanen dira.

11.2. Jasotako dirua kasu hauetan itzuli beharko da:

- a) Onartutako jarduerak ez justifikatzea.
- b) Eskatutako baldintzak bete gabe dirulagunza lortzea.
- c) Dirulagunza emateko deialdi honetako baldintzak ez betetzea.

11.3. Ikuskatze eta kontrol eginkizunen bidez, dirulagunza modu desegokian lortu edo erabili dela adierazten duten zantzuak daudenean, Udalak factura edo agiri erlatiboak atxikitzea erabaki dezake.

## 12.- NORMATIVA REGULADORA

La presente Convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento, y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa:

- Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones municipales (BON Nº 50, de 27 de abril de 2005)
- Bases de ejecución del Presupuesto del Ayuntamiento de Esteribar para el año 2021 y supletoriamente la Ley 38/2003 General de Subvenciones.
- Ley Foral 6/1990 de Administración Local de Navarra.
- Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.
- Ley Foral 13/2007 de la Hacienda Pública de Navarra y, de forma supletoria, la Ley General Presupuestaria.
- R.D. 887/2006 (Reglamento de la Ley General de Subvenciones)

## 12.- ARAUDI ERREGULATZAILEA

Deialdi hau dokumentu honetan jasotako oinarrien arabera arautuko da, eta, bertan aurreikusten ez denerako, honako araudi honetan ezarritakoaren arabera:

- Udal diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantza (NAO, 50. zk., 2005eko apirilaren 27ko)
- Esteribarko Udalaren 2021erako aurrekontua gauzatzeko oinarriak, eta, osagarri gisa, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa, eta, osagarri gisa, Aurrekontuen Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua (Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua)

Esteribar, a 20 de enero de 2021  
La Alcaldesa,

Fdo: M<sup>a</sup> Matilde Añón Beamonte

Esteribarren, 2021eko urtarrilaren 20an  
Alkatea,

Sin.: M<sup>a</sup> Matilde Añón Beamonte